

## EUSKALDUN BAT CALIFORNIAN

Istorio hau kontatzen duen pertsonak Tomas Ezkurra du izena. Igoakoa da eta 64 urte ditu. Hitzegiten duen euskalkia Iparraldeko Goi Nafarrera da, eta istorio hau kontatzeko eskatu diot, bidai asko egin arren, ez duelako bere hizkuntza ahaztu. Gainera oso istorio atsegina dauka kontatzeko. Bestela, entzun-entzun...

## EUSKALDUN BAT CALIFORNIAN

Eta pentsatu nun, garai batean Ameriketara joatea eta azaroan 23-an 23 urteekin martxatu nitzan Igoatik Bilbora ta Bilbon iru eun pasa eta andik Madrilera jun giñan trenez eta Madriden artu geñun egazkina eta andik goizeko amiketari altxa eta joan giñen leenbizi Nueva Yor-era eta Nueva Yorren zegola lañoa eta ezin zela jetsi abioia ta ordun artu zun bidaia Bostonera eta Bostonen jetsi eta an condu giñen rato bat Bostonen eta geo berriz altxa ta Nueva Yorrera ta ordun ya jetsi zen lañua ya kendu zun ta jetsi zen ta an pasa oi, nola esaten da, kontrola zeamazkiziñun gauzen kontrola pasa, eta geo andik abioia berriz artu ber ta jun giñen andik Los Angelesera ( California - Los Angeles ) an lo egin otel batean eta an leenbiziko aldiz antxen ikusi nuen telebista, Los Angelesen. Eta an lo ein giñun eta urrengo eguncan berriz artu abioia eta jun giñen ya Bekesfil beste ziudadeat izena Bekesfil duna Californian ere eta an jetsi ta berriz an bean zen artzaiña gu utzi ginttuen ta gu berriz aurrera jun giñen Fresnoraiño Californian. Eta an Fresnora allatu giñen eta eaman ziun otelera, otel Vitoria otel eta an gaua pasa eta urrengo goizean beste laun bat nerea Erbitikoa, Fernando Zubillaga, biekgiñen bakar-bakarrik an Fresnon eta otelan ari giñaelan pues azaldu zen artzain nausia eta bakoitxa bee nausiaekin ya an alde ein giñun biek partitu giñen eta ya ez giñun geiago elkar ikusi geio elkarrekin eta eraman zien bere rantxora eta an 2000 ardi eman zitiaten seittuan da antxen asi nintzen artzai. 2000 ardiekin, txakurrat eta tira eta andik 5 ilabetea ola, nausiak esan zian, Felipe Erro zen nausia, emengo, gurasoak emengoak zittun, Nafarrokoak. Bea an jaioa zan an sortua ta esan ziun: Bueno lana bukatu zait ta oain joan bearko duzu Aidajora. Beste estatu bat zegon milla ta bosteun milatara mila, emen kilometroak bezela kilometroak an milak dauke mila ta seireun metro. Ordun esan zien bueno, oain joan bearko duzu Aidajora an nausi bat oso ona ba dauket Rosko Rich izena daukena ta bueno ta eman zien paper bat idatzita ze in bear nun. Ta autobusa artu Fresnon, eta aillegatu nintzen eguerdirako Sakramentura. Sakramentu da Californiako iria eta an bazkaldu, bilatu nun bar bat Mejikanoa edo oina ta bazkaldu ta an pasa nun rato bat desfile bat ikusten ta ola eta autobusetan joan ta ni ez nekin ingles ezer ez nakin eta ba itz bat eo beste ola sueltoan bakar-bakarrik eta asi zian altabozak ingles autobusak noa ta atea bear zuten ze autobus bakoitza bere lekura ta beñepein zerbait enttendittu nion ta atean izena ta numeroa ta joan nintzen nire ticket, nire txartelakin joan nintzen ta ba, ez banaiz zuzen joaten pues txartela ikusteakin atzea botako ziatela

ta. Baina azertatu nun ta ongi eon nintzen ta andik autobusen sartu, eta arratsaldeko bi ordutan eta atsalde guztia, gaue guztia, eta urrengo egun guztia ta gaueko amabitan allaatu nintzen lekura. Beño bidean, bitarten, galdu nintzen, osea galdu traspasoa, trasbordoan ein bearrean autobusez aldatu bearren, ein nintzan loak artu ta papera idatzita naukena erakustea txoferrai aaztu klaro, loak artu nintzen. Eta ordun eraman zieten 500 milla direkzion kontraria nola esaten da! Bai, bide okerretik eaman zidaten 500 kilometro, 500 milla. Eta ordun an esnatu nintzenen ni erakutsi nion papera txoferrari ta esan zin: Txisus Kraiz! Jesu Kristo! Que emos echo? Ola beñipen ola galduta da beste autobus baten jarri zian atzean txoferrak martxa atzea etortzeko Nevadara, Estao de Nevadara etortzeko ta an beez buelta atzea. Ta Nevadan beste autobus bat artu ta jun nintzen nere lekura Aidajora beño kriston retrasoakin ta an gaueko amabitan zeon nausia esperoan ta nik ez nun ezautzen ta beak ere ez neri ta ikusi zianni an esan zun esan zien: You Tomas Ezkurra! Ta nik -si- esan nion ta ya Tomas Ezkurra nintzen. Ark ezagutu nun seittun.-Este no será el que viene pa mi- esan zun. Ta beñipen, elkartu giñen ta esan zien aber gosea ba naukin ingles ea ulertzen nion ta nik ezetz, ez naukela goseik, bitarte guztin jateko neon bainan nik ez naukela gose nik jun nai nun ya mendira ta nere launekin an elkartu ta kitto. Eta ola beñikpein. Ta ola gora joan, mendira eraman zien ta asi zen ordun pues erditzen da xurik jaiotzen ari zien ta an leenbiziko gaua oso gaizki, elurra zeon ta otzak ilik tienda kanpaña batean nik uste nun ordun iltzen nintzela otzak. Kristona sufritu nun gau artan! Ta ola, neon pasatzen ta geo lanen asi nintzen nire launeki an euskaldunekin ta alaxe an eondu nintzen beste denborada bat eta Californiako nausik beez deitu nintzian berriz etortzeko Californira lanera ta nik ez nula ez nintzela etorriko ta baietz ta beñipen beez etorri nintzen Californira. Ta ein nun nire lo etxeko oea ta arropak guzik biden galdu. Autobusetan galdu nitun denak. Nik banun tiketa, esaten zaiona, nere ekipaje segurantzana beño galdu zen ta deus gabe gelditu nintzen ta beez Californian lanin an beste tenporadatxo bat aittu nintzen lanin ta bebez lana bukatu zen ta Aidajora jun bearko nula ta beez jun nintzen Aidajora. Urrango aldin errazago, ordun ya banekin defenditzen nintzen ingeles piskeat laneako moduan ta ola ta berriz jun nintzen ta berriz nai zun etortzea Californira, urrango aldin berriro ta nik esan nion ezetz. Ez nai nula Californira etorri baiño Españira etorri, nai nun etxera etorri. Eta ola beñipen biek pelean ibili giñen nausik eta biek telefonoz ta, nik ez nintzela etorriko Californira ta. Bueno, utzi zidan pakian. Ta gero, kontratua bukatzerakoan ordun esan tzien bueno orain Españira o Californira joan bearkozu nai baduzu proroga artu eta jun bearkozu Españira o Californira. Ta oain jungo naiz Californira, nai nun denbora geiago

pasa lanean ta ordun Californiara etorri nintzen ta antxe nengon nausi txar arekin pasatu nun denbora ta andik gero Espaiñera, Euskal Errira. Artu nun egazkina Fresnon ta andik jun nintzen San Franziskora ta bakarrik ordun ya oso ongi defenditzen nintzen ya izketan eta, dominatzen nun. San Franziskon artu nun egazkina ta andik Nueva Yor-en aldatu bear nun kanpo abiazioatek bestera, Iberia artzeko, Espaiñiako abiona artzeko. An artu nun autobuse ta beste kanpora jun nintzen ta an Iberia artu. Izagunekin nittun an, Miamin, zesta puntan ari zien Bizkaino batzuk, Floridan, zesta puntan aitzen dana pelotan. Aiekin elkartu nintzen, aiekin batea Madrilla etorri, zen el dia de Ramos igandea zen aillegatu nintzela Madrillea ta ola, ortxe bukatu zen nere esperientzia Ameriketara jun nintzenekoa.